

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARENA, 2011

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta Fundazioaren kudeaketa hobetzeko gomendioak ematen ditu.

Legezkontasunari dagokionez, HKEEk uste du Fundazioak bere ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko araudia bete duela 2011ko ekitaldian zehar. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Honela, bada, langileei dagokienez, ez dugu egiaztatzerik izan 2011n gauzatu diren bi pertsonen kontrataziorako eta 2009an kontratatu zen pertsona baten kontrataziorako berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde direla, eskuratu zaizkigun agirien urritasuna aintzat hartuta.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Fundazioak urratu egin duela zenbaitetan ezargarrria zaion araudia; hona hemen ez-betetze esanguratsuenak: hainbat zerbitzu eta hornidura kontratutan ez dira DOUEn argitaratu kopurua aintzat hartuta argitaratzekoak ziren lizitazio iragarkiak; publizitate eta lehiarik gabe hornigai bat kontratatu da eta kontratuaren oinarritzko ezaugarriak ezarriko dituzten pleguak garatu gabe; berebat, hainbat gastu erosketa txiki modura izapidetu dira edo hiruzpalau eskaintza eskatuta; ordea, kopuruak aintzat hartuta publizitadedun prozedura baliatuta kontratatu behar zituzkeen, lehia bermatuko zuena.

Fundazioaren urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan ondarearen eta abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala erakusten dutela; baita eragiketen emaitzena eta ekitaldian eskudiruzko fluxuena ere.

Urteko kontuei buruzko iritzian eraginik izan gabe, HKEEk komenigarri iritzi dio, egoki interpretatu ahal izateko, ondotik zehaztutako informazioa aintzat hartzeari:

Fundazioaren 2011ko abenduaren 31ko ondare eta ekonomia egoerak funtzionatu ahal izateko ezinbestekoa da erakunde fundatzaileek aldiari behin ekarpena egitea; ekitaldi honetan ekarpen horiek Fundazioaren urteko diru-sarreraren % 64 egin dute.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei dagokienez.

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARENA, 2011

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta Fundazioaren kudeaketa hobetzeko gomendioak ematen ditu.

Legezketasunari dagokionez, HKEEK uste du Fundazioak bere ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko araudia bete duela 2011ko ekitaldian zehar. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Honela, bada, langileei dagokienez, ez dugu egiaztatzerik izan 2011n gauzatu diren bi pertsonen kontrataziorako eta 2009an kontratatu zen pertsona baten kontrataziorako berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde direla, eskuratu zaizkigun agirien urritasuna aintzat hartuta.

Kontratazioaren atalean, HKEEK adierazi du Fundazioak urratu egin duela zenbaitetan ezargaria zaion araudia; hona hemen ez-betetze esanguratsuenak: hainbat zerbitzu eta hornidura kontratutan ez dira DOUEn argitaratu kopurua aintzat hartuta argitaratzekoak ziren lizitazio iragarkiak; publizitate eta lehiarik gabe hornigai bat kontratatu da eta kontratuaren oinarriko ezaugarriak ezarriko dituzten pleguak garatu gabe; berebat, hainbat gastu erosketa txiki modura izapidetu dira edo hiruzpalau eskaintza eskatuta; ordea, kopuruak aintzat hartuta publizitadedun prozedura baliatuta kontratatu behar zituzkeen, lehia bermatuko zuena.

Fundazioaren urteko kontuei dagokienez, HKEEK uste du alderdi esanguratsu guztietan ondarearen eta abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala erakusten dutela; baita eragiketen emaitzena eta ekitaldian eskudiruzko fluxuena ere.

Urteko kontuei buruzko iritzian eraginik izan gabe, HKEEK komenigarri iritzi dio, egoki interpretatu ahal izateko, ondotik zehaztutako informazioa aintzat hartzeari:

Fundazioaren 2011ko abenduaren 31ko ondare eta ekonomia egoerak funtzionatu ahal izateko ezinbestekoa da erakunde fundatzaileek aldian behin ekarpena egitea; ekitaldi honetan ekarpen horiek Fundazioaren urteko diru-sarreraren % 64 egin dute.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei dagokienez.